

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresa besteengandik desberdintzen gaituena **booktrailerrak** dira. Alde batetik, honek liburu bat aukeratzeko **azkartasuna** eskaintzen du, trailerren bidez bezeroek (kasu honetan, irakurleek) haien irakurketak erabakitzea **errazagoa** egingo zaielako. Irakurleek, denbora gutxiago behar izango dute liburua gustuko izango duten ala ez jakiteko.

Gure **booktrailerrak irakurketa bultza dezake** gazteen artean. Honi esker nerabeek irakurketarako joera handiagoa izan dezakete.

Aplikazio hau eguneko **24 orduetan dago eskuragarri**; beraz, irakurleek nahi dutenean erabil dezakete. Gainera, aplikazioa **irakurle eta idazleentzat** da, eta azken hauek maiz berritzen dituzte haien istorioak, eta horrek bezero asko erakarriko ditu, hauek **berritasunen zain** egongo direlako.

Prezioari dagokionez, aplikazioa eskuratzea **dohain** izango litzateke eta soilik iragarkiak kendu nahi izanez gero, **kuota txiki** bat hilabetero edo urtero ordaindu beharko lukete bezeroek.

Hilabete batean ordaindu beharrekoa 3€ izango da, berriz, urtean ordaindu beharrekoa 35€, merkeagoa aterako litzatekeelako. Hau horrela erabakita dago pizgarri bezala, bezero gehiago erakarri nahian.

Kuota hau ordaintzeagatik **harpidetza** bat lortuko zenuke, eta hurrengo abantailak lortuko lirateke: iragarkirik gabe, eta lineaz kanpoko istorioetarako sarbide mugatua.

